

Suiziden plaza



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Haurren 2021-22ko ikasturterako matrikulazioa gauzatu berri da Nafarroan. Lerro hauek idatzi orduko daturik ez dugu sare publikoan zer gertatu den jakiteko. NIEko ikastoletan, beherakada nabarmena izan da, areago Iruñerriko ikastola handietan.

Ez da kontu berria.

Zenbait hamarkadatan, Nafarroako euskaltzaleen kontsolamendurako baliario izan dute ikastetxeetako matrikulazioaren emaitzek. UPNk eta PSNk alor guztietan hesitu nahi izaten gintuzten, baina bederen, urtez urte goiti egiten zuen seme-alabak euskaldun nahi zituen guraso nafarren kopuruak. Noizbait lelo ere bilakatu genuen, harrikada errekurte, etsaia amorratu edo argudiorik gabe utzi nahi genuenerako.

Akitu dira halako garaiak.

Barcinak asmatu zuen IIP (Ingelesez Ikasteko Programa; erdaraz, PAI) abiatu zuelarik duela 10 urte inguru. D ereduaren gorakada moteldu zuen pixkana, arruntik geldiarazteraino. Orduetik, urtez urte, hamarrenen batek ihes egiten digu matrikulazioaren ehunekoetan. %33tik hurbil ibili ginen noizbait. Iaz, %29 juxtu-juxtu. Aurten, ikusiko.

UPNk eta PSNk alor guztietan hesitu nahi izaten gintuzten, baina bederen, urtez urte goiti egiten zuen seme-alabak euskaldun nahi zituen guraso nafarren kopuruak

Ingeleseko irakaskuntzaren hedapenak ez du, dena dela, pixkanakako beherraldi hau bere osoan argitzen. Barkosen gobernuak (2015-2019) politika garbia eraman zuen D eredu indartzeko eta IIP ahultzeko. Seguru aski gehiago egin zezakeen. Egin zuena ez zen aski izan joera orokorrari bihurtze bat emateko. Chiviteren etorrerak ez du, bistan denez, deus hobetu.

Matrikulazioari dagokionez, gero eta nabarmenagoa da faktore demografikoaren eragina. Jaiotzeak, orokorrean, gero eta gutiago dira, eta gero eta handiagoa, berriz, etorkinen pisua jaiotze tasetan. Ez litzateke hizkuntzarendako hain ara-

zo handia izanen, D eredu hurbiltzen diren etorkinen kopurua handiagoa baltitz. Foru Komunitatean, ordea, kolektibo horrek, haurretan emankorrenak, aukerarik baldin badu, euskararik gabeko ereduak aukeratzen ditu nagusi-nagusiki bere seme-alabendako. Aldiz, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren hautua egin ohi duen gizarte sektorearen presentziak gero eta ahulagoa dirudi piramide erreproduktiboan.

Ez dakit inoiz batailarik irabazi(ko) dugun. Demografiarena nabarmen galtzen ari gara Nafarroan, baita, susmo hutsez, Nafarroatik kanpo ere. Alabaina, nahiago afera ez harrotu, atzerakoitzat har ez gaitzaten. Gazteriak bertzelako gizarte politika batzuk beharko ditu gure jaiotze tasak handituko badira. Hori ukatu gabe ere, badugu zertaz gogoeta egin. Alor honetan –eta bertze batzuetan– bakoitzak nahi edo ahal duena egiteko eskubidea du, bertzerik ez zen falta. Hori argi izanik ere, euskaldun eta euskaltzale gisa, suizida samarra iruditzen zait amatasuna eta aitatasuna desinentibitzen duten jarrereri gure mundutxoan ematen zaizen plaza zabala.

Adibide bat ipintze arren. ●



BAT 118 /
EUSKARAREN
INDAR- ETA
AHULEZI-PRINTZAK
IPARRALDEAN

bat Soziolinguistika aldizkaria



JEAN-BAPTISTE COYOS > Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun Ipar Euskal Herrian: hizkuntza-bizindarra.

ENERITZ ZABALETA > Zein lege babes hizkuntza politikarentzat Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan?

EGUZKI URTEAGA > Euskararen presentzia eta aukerak. Iparraldeko unibertsitate-testuinguruan.

ARGIA OLÇOMENDY > Euskararen lekua goi mailako irakaskuntzan eta ikerketan. Ipar Euskal Herrian (2010-2020).

XAN AIRE > Motibazio sozialaren printzak, ikastetxetik plazara.

XANTIANA ETXEBEST > Euskara eta irakaskuntzaren arteko hausnarketa.

GUREAN ATALA
AITOR MONTES > Osasuna eta euskara: bidegurutzean.

SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA
Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556 / bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus